


Arrasate

P R E S S

2001.eko
uztailaren 6a
548. zenb.



Herriaren eraldaketa antolatu guran



Oporretan ere



etxeko lanak banatu



eta udan...



urteurrenak

San Frantzisko Xabier ikastola bigarren zikloan

■ 71. zenb.

1990eko uztailaren 6an idatzi genuen...

Irakaskuntzaren erreformak ekarriko dituen aldaketei aurre egiteko, San Frantzisko Xabier ikastola bigarren zikloa ematen hasi da, hau da, 16 urte arteko irakaskuntza bere gain hartu du. Eskola Politeknikoak, bestalde, 16 urtetik gorako irakaskuntza jorratu nahi du eta, hortaz, LH-1 ikastolaren esku utzi du, akordio baten bitartez. Honela, ikastolako bi irakasle lehen eta bigarren IEE-ko eskolak ematen hasi dira Eskola Politeknikoan.



Hilerri berria aurrera

■ 71. zenb.

1990eko uztailaren 6an idatzi genuen...

Udalaren gobernu batzordeak kanposantu berriaren oinarriko proiektua onartu du. Proiektuak dioenez, hilerri berria San Kristobalen eraikiko da, eta denetara 8.864 hilotz inguru izango ditu. Kanposantu berria eraikitzeko aurrekontua 563 milioikoa da. Gorpak lur azpiko bobedetan gordeko dira, eta guztira kanposantuak 24.222 metro koadro zabal izango ditu, hiru zatitan banatuta.

Osakidetzak baimen berria eskatu

■ 71. zenb.

1990eko uztailaren 6an idatzi genuen...

Osakidetzak eskualde ospitalean premiazko berrikuntzak egiteko baimena eskatu dio udalari. Berrikuntzak X izpien gelan eta larrialdietarako gelan egingo dira. Osakidetzak adierazi du lanek ez dutela zerikusirik eskualde ospitalea eta anbulatorioa eraberritzeko planarekin. Udala, berriz, beldur da eraberritzearen hasiera ez ei diren izango berrikuntza horiek.

besteek esana



Garrantzitsua da ahozkotasuna indartzea eta herriko hizkeraren gainean dauden konplexuak uxatzea, eta euskalkiak, txistek kontatzeko balio digun moduan, artikulatu bat idazteko erabiltzea. Bestalde, asmoa da udalekin, eskolekin eta aisialdi taldeekin hitzarmena egitea eta lankidetzaz bultzatzea, herritarrengandik oso gertu dauden erakundeak direlako eta euskalkiaren erabileraren gainean zeresan handia daukatela iruditzen zaigulako».

Serafin Basauri


BADIHARDUGU ELKARTEKO
PRESIDENTEA

ARGIA

(2001eko uztailaren 11a)

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Asteko hitzorduak 4
- Herritarren berbak 5
- Astearren errepasoa 6
- Inkesta 7
- Orain eta hemen 8/9
- Txutxumutxuak 10
- Beheko denak 12
- Asteko gaia 14/16
- Kirolak jokoan 17/18
- Kulturaren txokoa 19/20
- Uhinetan barrena 21
- Foto zaharra 22



Mari Jose Gil Espainiako
atletismo txapelketan
nagusitu zen.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publikatzailea:** Arantza Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakaldea:** Lorea Agiriano. **Banaketaren arduraduna:** Naiara Odrozola-AED. (Tel.: 943 71 22 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISBN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper
birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatornua 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Bankura 17:00etik 08:30era
Zapatuetan 14:00etik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Bankura 08:00etik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

udako ordutegiak

Udal zerbitzuek udako ordutegia izango dute aurrerantzean. Gazte eta Sexologia zerbitzuek 10:00etik 14:00etara eta astelehen eta martitzenetan, gainera, 17:00etik 20:00etara zabalduko dute. Udaltzaingoa 10:00etik 14:00etara izango da zabalik. Kultura

etxeak 20:00etara aurreratu du uztailleko itxiera ordua. Musakolako kiroldegia 08:30etik 21:30era arte zabalduko ditu ateak, baina igerilekuak 09:30etik 20:30era izango dira zabalik.

mus txapelketa

Uztailaren 6an, 22:00etik aurrera, I. Toki Eder Taberna mus txapelketa jokatu da, Roman Lópezek antolatuta. Bikote bakoitzak

5.000 pezeta ipini beharko ditu izena ematerakoan.

I.j. arrietaren erakusketa

Hilaren 13tik 25a bitartean, Luis Javier Arrietaren margo erakusketa izango da Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Astegunetan,

18:00etik 20:00etara, eta asteburuetan, gainera, 12:00etik 14:00etara.

arima beltzaren kontzertua

Uztailaren 13an, Arima Beltza taldeak kontzertua emango du Ferrerías kaleko plaza-

txoan, 23:00etan.

zinema monterronen

Uztailaren 12an, *Matrix* filma emango dute Monterron parkean, 22:30ean. Sarrera doan

izango da.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 6

- Amezua, Santa Marina

Zapatua, 7

- Zabala, Zarugalde

Domeka, 8

- Ruiz, Magdalena

Astelehena, 9

- Morales, Araba

Martitzena, 10

- Azkoaga, Ferrerías

Eguaztena, 11

- Azkoaga, Iturriotz

Eguena, 12

- Corcuera, Aranbarri



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



TXIRRITA

Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



Herritarren berbak

Hauteskundeak lasaitu ondoren

Ander Elortondo / Alderdi gabea

Harluxet hiztegiak dioenez, boterea herriarengan datzala dioen doktrina politikoa da demokrazia. Baina zer da herriarengan boterea izatea? Nire ustez, lehenik, herritarrek agintariak aukeratzeko eskubidea izatea da. Horrez gain, botere zatiketa, giza eskubideak..... Gaur ez naiz horretaz ari-tuko, hemen halakorik ez dugun arren.

Agintariak guk aukeratzen al ditugu? Nik neuk ez daukat horretarako aukerarik. Alderdi ezberdinen artean bozkatzeko aukera besterik ez dut. Gurea alderdikrazia da, ez baititugu agintariak aukeratzen, alderdiak baizik.

Alderdiek finkatzen dituzte zerrendak, eta guk osotarik datozen zerrenden artean aukeratu behar dugu. Beraiek proposatutako zerrendakoekin nire gustuko zerrenda bat osatu ahal izango nuke, kostata hori bai, baina zoritxarrez hori ere ezin da. Ez omen da aurreikusten demokratikoki onartutako legedian eta, beraz, ez omen da demokratikoa.

Azkenaldian figura berri bat sortu da, transfugarena. Bitxo berezi honek alderdien planak apurtzen ditu eta bera izendatu duen alderdiari men egiten ez dioenez, kriminalizatu beharra dago. Hauen aurka

ko legediak proposatzen hasiak dira, nor-tzuk? Alderdiak, noski. Honetan, beren sol-daten igoeran bezalaxe, bat datoz eta. Alderdi guztiak bat etorriko dira alderdien boterea mantentzean.

Hautagai bakoitzak askatasuna izan beharko luke, eta guk hautagaiak hautatzearena. Honela, hauek bere herritarren interesak defendatu beharko lituzkete. Ideia antzerakoak dituzten hautagai ezberdinek taldeak osatzeko aukera lukete, eta ez gaur egunekoa, taldeek hautagaiak inposatuz. Gaur, berriz zerrendan egon nahi badute, alderdiari men egin behar diote, hurrengoan ere jar dezaten.

Zerrenda irekiekin, hautagaiek garbi daukate alderdiak esandakoaren gainetik, bera aukeratu duten herrialdeko interesak defendatu behar dituztela, berriz aukeratu izatea nahi izanez gero. Alderdiek herriaren babesa duten hautagaiak bereganatu nahi izango dituzte beren boterea handitzeko, alderdiek botere egarria dute eta. Alderdiak benetako botere mafiak bilakatu dira Espainiako Estatupeko legedi maltzurtean. Euskal Herri independentean zer izango ote da?

“Alderdi guztiak bat etorriko dira alderdien boterea mantentzean”

aste gazte

■ INFORMAZIO TURISTIKOA

• Udarako planak egiten bazabiltza, informazio turistikoa daukagu Gazte Bulegoan, Euskal Herriko zein mundu zabaleko informazioa: ostatua, planoak, liburuxka turistikoak...

■ TXARTELA

• Nazioarteko gazte, ikasle edo aterpetxe txartela eskuratzeko aukera duzu Arrasateko Gazte Bulegoan.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, azken urtean kooperatibetan bazkide gisa sartu direnentzako laguntzak. Epea: uztailak 30.

■ LANA

• Muskitzeko Udalerako eskutik dinamizatzailea behar da. Epea: uztailak 11.

• Hernaniko Udalak hainbat postu bete gura ditu: Umezaintzako zaintzailea eta liburutegi laguntzailea. Epea: uztailak 12.

• Zestoako Udalak zerbitzu orokorretako arduraduna behar du. Epea: uztailak 16.

• Irunen antolamendu eta kalitateko teknikaria behar da. Epea: uztailak 21.


• Eusko Trenak autobus gidarien lan poltsa osatu gura du. Epea: uztailak 14.

■ IKASTAROAK

• Arkeologia ikastaroa: astelehenetik egubakoitzera, 10.30etik 13.30era, uztailaren 9tik 20ra bitartean. Santa Barbaran egingo da, Arkeolanen eskutik.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA
943 77 00 65



USTEAK USTE

Hizkuntza eskubidea

Duela hilabete baino gehiago, Aretxabaletako ikasle gazte bat bere ikasgelako lagunekin batera Londresera zihoala, Espainiako poliziak hegazkina hartzea galarazi zion Loiuo aireportuan. Poliziaren esanetan, eta hori ei zen arrazoia, gaztetxoak -adin txikikoa- zeraman baimena -gurasoena- euskaraz idatzita zegoen. Are gehiago, poliziak aretxabaletarrari hegazkina hartu ahal izateko bere gurasoen gaztelaniazko baimen idatzia behar zuela agindu zion. Egin beharrekoa bat-batekoa zenez, ezinezkoa, hortaz, neskatiak ezin izan zuen hegazkina hartu eta, a zer estutasun pasatu zuen! Gerora, Espainiako gobernuak Loiuo gertatutakoa justifikatu guran, Espainiako Estatutik irteteko halako agiriak "hizkuntza ofizialean" idatzita egon behar direla azpimarratu berri du, Estatutua eta Konstituzio santuetan oinarrituta, betiere. Beste behin, euskararen erabilera eta garrantzia zapalduta gelditu dira, ziurrenik eurek egindako legedia bera lotsagabeki ukatuz.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Auzo-etxeak konpontzekotan

Oraingo asteko gobernu batzordean landutako gaien artean, Garagartzako eta San Andresko auzo-etxeetan lanak egitea onartu zen. Garagartzakoa margotu egingo dute, lurra bernizatu eta eskaiola ipiniko dute, besteak beste. San Andresen, berriz, eskulan-gela margotuko dute eta leihoak aldatu egingo dituzte. Guztira, milioi bat pezeta inguruko aurrekontua dute lanek.

■ Zoladura lanak

Halaber, Okendo-Azoka kalea txukuntzea onartu du gobernu batzordeak. Zoladura lanak egingo ditu, hain justu. Eta, horretarako, ia 2.700.000 pezetako aurrekontua onartu du.

Bestalde, Laubideko udal garaieetan komun publikoak egiteko proiektua ere onartu du, eta lan horietarako ia lau milioi pezeta gastatuko ditu udalak.

■ Beherapenak

Astelehenean hasi ziren, ofizialki, udako beherapenak; eta legeak dioenez, asko jota bi hilabete iraun dezakete, irailaren 15a arte. Hortaz, produktu bera prezio merkeagoan aurkituko dugu hemendik aurrera dendetan, eta batek baino gehiagok aprobetxatuko du erosketak egiteko. Baina horrelakotan badaude kontuan hartu beharreko baldintza batzuk: adibidez, prezioak merkeagoak izan arren, produktuen kalitatea berbera izan behar da; lehengo prezioa eta

oraingoa, biak erakutsi behar ditu dendariak, eta erosita-ko produktua ondo ez bada- go, bueltatzeko eskubidea du erosleak.

■ Amaia antzokia

Maiatzean hasi ziren Amaia antzokia berritzeko lanak egiten, eta oso aurreratuta doaz. Barrualdea hustu dute eta konpontzen ari dira: alde batetik, intsonorizazio lanak egiten eta, bestetik, ura ez pasatzeko paretak babesten.

Berez, antzokia abenduaren lehenengo asterako erabiltzeko moduan utzi gura dute, nazioarteko akordeoi lehiaketarako. Edoze- lan ere, abuztuaren erdial- derako lehenengo aldiko lanak bukatuta izango dire- lakoan daude.

■ Sua berriro

Joan den egubakoitzean sua piztu zen berriro ere San Cristobal mendian. Udaltzaingoak adierazi du normala dela hori gertatzea; orain dela bi aste sua piztu zen eta han dagoen zikinkeria dela-eta, noizean behin su txikiak pizten dira. Adi ibiltzea eta ingurua zaintzea da egin beharrekoa.

Eta, hain justu, egubakoitzean suhiltzaileak eta udaleko sua itzaltzeko taldea San Cristobalen izan ziren, ura bota eta sua handiagoa egin ez zedin zaintzen.



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

ML
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Zer deitxozu ziklisteri antidoping kontrolak egittiari?

Italiako Giruen, drogen bille, poliziak kontrol zorrotzak egin zittuen. Tourrien gauza bera pasauko ote da?



Mari Cruz Durán
(Langillie)

Gauzak ganoraz egin biherdie. Girokue lotsagarrixer izen zan. Gaiñera, nere ustez, ziklista danak ez die drogetan, edo ez dakixe drogetan dabitzela.



Angelines Hernández
(Etxekoandrie)

Oso ondo deitxot.



Ibai González
(Ikaslie)

Kristoren erregistrue egittiarri, Giruen pasau zan moduen, oso txarto deitxot. Iguel jarraipena egin bihera dago, baiñe beste modu batera.



Jose Luis Gómez
(Langillie)

Kontrolak egittiari ondo deitxot, baiñe ez Giruen egin zien moduen, ezta ziklistei bakarrik egittiari be; danei egin biherko leuskie horreik kontrolok.



Iñaki Zuazubiskar
(Ikaslie)

Txarto deitxot.



Joseba Andoni Etxeberria
(Langillie)

Kontrolak egittiari ondo deitxot, baiñe kirol danetan egin biherko litzakez.



Esther Zaitegi
(Langillie)

Oso txarto. Poliziek ez dauko eskubiderik jentien bizimoduen hola sartzeko. Beste modu baten egin biherko litzakez.



Onintza Langaran
(Ikaslie)

Kontrolak egittiari ondo deitxot, baiñe bere neurrixen. Nere ustez, beste modu baten egin biherko litzakez.

BASATI
TABERNA
DINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
T.L.F. 943 711762

EGUZKIGRAF
inprimategia
Industriaidea F-0-4
Tfnua: 791814
Faxa: 792941
ARETXABAETA

Batzar Nagusiak Mondragoen

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Mondragoen elkartu ziren joan den astelehenean. Hogeita bi urte geroago etorri dira berriro Mondragoera, 1979an egin zuten-eta herriz herriko azken batzarra.

Xabier Zubizarreta alka-teak udaletxearen atarian egin zien ongietorria Gipuzkoako diputatu nagusi Roman Sodu-peri eta Batzar Nagusiko presidente Iñaki Alkizari. Herri-ko presoen senideak ere ger-turatu ziren, eta presoen esku-bideen aldeko gutun bat eman zioten Iñaki Alkizari.

Eta Ohorezko Agurra ikusi eta gero, batzarra hasi zuten. Gogoeta historikoa izan zuten berbagai hasieran; izan ere, 1877an herrien batzarra Mondragoen egin behar zen, bai-na foruak ezeztatu zituzten eta



bertan behera utzi behar izan zuten batzarra, 1979ko uztai-laren 2a arte.

Gai bakarra landu eta onar-tu zuten martitzenean: sozie-tateen zergak aldatzea. EHk izan ezik, beste alderdi guztiek alde bozkatu zuten eta onartu egin zen proposamena. EH abstenitu egin zen, ezker aber-tzaleko ordezkariendako alda-

keta horiek ez dira-eta nahiko.

Horrez gain, Xabier Zubi-zarretak batzarra aprobetxatu zuen Gipuzkoako Diputazio-ari erreklamazio bat egiteko: Debagoienari eman beharreko laguntzak eta oraindik eman ez dituenak. Eta, halaber, gaine-ratu zuen Diputazioak Mondragoerekin ez duela ondo jokatu, neurri batean.

Ertzaintzaren jarrera salatu dute

Ertzaintzak San Juanetan izandako jarrera salatu dute Mondragoeko erdialdeko zor-tzi tabernak. Biona, Irati, Etxerat, Basati, Jai Zale, Iluntz, Ekaitz eta Iturriotz, hain zuzen ere. Komunika-bideei bidalitako gutun bate-an jakinarazi dutenez, jaien azkenurreko gauean, ekai-naren 25ean, Ertzaintza Bio-na tabernara sartu zen oso modu txarrean: "Burua txanoekin estalita sartu ziren, eta probokatzeko jarrera eta bote-rea neurrigabe erabili zituz-ten. Gero, txosnetarantz jo zuten pilotakadaka". Taber-narien esanetan, Ertzaintzak arriskua eragin zuen eta haren "jarrera autoritario, agintzai-le eta despota" salatu eta egin-dakoa giza eskubideen kontrakoa dela adierazi nahi izan dute publikoki.

ZIGORRA

Halaber, horrelako egoerarik berriro gerta ez daitezen, dagokion agintariari beharrezko neurriak har ditzan eskatu diote, gertakari onar-tezinak zigorrik gabe gera ez daitezen. Eta herriak guztiz kontrakoa behar duela adie-razi dute. Zera azpimarratu dute, besteak beste: "Elka-rrizketa, negoziazioa eta dau-den gatazkak konpontzeko tratamendu sozial eta politi-koa".

Otalorako gertakariak epailearen esku

Astelehenean Otalora kalean gertatutako ezbeharrak orain-dik ere ikertzen dabilta, Ber-garako epailearen esku. Ertzaintzak Olarte kaleko etxebizitza itxi du eta zer ger-tatu zen ikertzen ari da.

HIPOTESIAK

Bi hipotesi ei daude: baten ara-bera, senar-emazteen eta semearen artean eztabaida piztu zen eta liskarraren ondorioz, aitak emazteari eta seme-ari eraso egin zien eta gero bere buruaz beste egin zuen.


Beste hipotesiaren arabera, berriz, semeak zerikusia izan dezake Juan Arrotxaren herio-tzarekin. Dena dela, Ertzain-tzak oraindik ez du inor atxi-lotu.

Emaztea eta semea Arra-sateko eskualde ospitalean daude; biak labankadaz zaurituta iritsi ziren ospitalera, baina arriskutik kanpo dau-de.

Ezbeharrak asteleheneko laurak laurden gutxitan ger-tatu zen, Otalora Lizentzia-duna kalean. Ordu horretan,

60 urteko Juan Arrotxa arra-satearra laugarren solairutik jausi zen. Gurutze Gorriko anbulantzia batean eraman zuten Arrasateko eskualde ospitalera, baina hilik iritsi zen. Minutu gutxira hildako-aren semea ospitalean ager-tu ei zen labankadaz zauritu-ta, eta Ertzaintzak emaztea etxean aurkitu zuen, hura ere zaurituta.

Juan Arrotxa Gartziazen hileta elizkizunak eguazten arratsaldean egin ziren Arra-sateko parrokian.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Txernobilgo umeak geurean dira

Egubakoitzean, goizaldeko ordu biak aldera, heldu ziren Arrasatera Txernobilgo umeak. Txernobilgo Lagunak elkartearen eskutik etorri dira bai Arrasatera baita Aramaiora eta Bergarara ere.

Guztira, hiru herri horietara bederatzi ume eta gazte ekarri dituzte, seitik hamasei urtera bitartekoak. Ivankiv eta Kiev hiriburuetatik etorri dira; Txernobilgo indarretxe nuklearretik 60 eta 140 kilometrorra daude hiri horiek, eta isurketa gertatu zenean ondorio larriak izan zituzten gazte guztiak. Ukrainako gobernuak ipi-



nitako baldintza da hori: umeek isurketaren ondorioak jasan zituztela erakutsi behar dute, medikuaren agiri batekin.

BI HILABETE

Gazteenak sei urte ditu eta nagusienak, berriaz, hamasei. Azken hori ezin izango da

datarren urtean etorri, ez, behintzat, Txernobilgo Lagunak elkarteak antolatzen duen bidaiarekin; izan ere, 17 urtetik beherako umeak ekartzin dituzte beti, hortik gorakoen bidaia oso garestia delako.

Ume horiek guztiak bi hilabete egingo dituzte gure artean, eta abuztuaren 29an bueltatuko dira Ukrainara.

Uztailean gure ibarrean egiten diren ekintzetan esku hartuko dute, eta abuztuan ibarretik alde egiteko aukera izango dute Debagoieneko euren familiekin.

Euskal Nortasun Agiriak gertu

Apirila baino lehen ENA egiteko eskaera egin zutenak AED elkartera joan daitezke agiria jasotzera, dagoeneko gertu daude-eta. Gainera, AEDko idazkari Ander Elortondok adierazi du azken hilabeteotako arazoei aurre egin eta gero, hemen-dik aurrera atzerapen txikiagorekin ibiliko dira Euskal Nortasun Agiriak egiterakoan. Ander Elortondok argitu digu-

nez, azken urteotan gertatu diren, eta dauden, jarraipen judizialak direla-eta, ENA egiten zebiltzanak kartzelaratzeko mehatxupean zeudelako, hain justu, horrexegatik atzeratu da horrenbeste nortasun txartel berriak egitea.

Bestalde, ENA egiten duen elkarteak batzar nagusia izan zuen Durangon eta ENA egiten segitzea erabaki zuen. -Hor-

taz, oraingo ez dute bat egingo Udalbiltza bultzatzen ari den Euskal Herriko Nortasun Agiriarekin (EHNA).

Mondragoeren kasuan, oraindik ez dago EHNA egiteko aukerarik. Hortaz, AEDk ENA tramitatzen segituko du. Eta EHNA egiteko aukera dagoenean, egoera aztertu eta orduantxe erabakiko du zer egin.

Anbulatorioko oharra

Joan den astean, hemen-dik aurrera anbulatorioak izango duen ordutegiaren berri eman genizuen. Kontua da guk udako ordutegia zela esan genuela, baina anbulatorioaren ordutegi berria da, ez udakoa bakarrik.

LIKIDAZIO
OSOA

Aprobetxa
ezazu
prezio
ezin
obeak

AZKEN EGUNAKI

ARRASATE  KIROLAK

Kontzeziño, 8 - Tel. 943 793 838 - ARRASATE



LEHIAKETA BERRIA AUZOBERRIREKIN


Gaur, egubakoitza, I. Toki Eder Taberna mus txapelketa jokatu du San Andresko taberna horren inaugurazio ez-ofiziala egiteko. Man Auzoberri tabernariak ilusio handiz prestatu du lehiaketa, eta sari handiak izango dira: bikoteek 5.000 pezeta ipini beharko dutenez, Manu uste du txapeldunek 100.000 pezeta, gutxienez, sakelaratuko dituztel.

KALITATEKO IKASTAROA ETA KALITATEKO IKASLEAK

Iraunkor-ek, Goi Eskola Politeknikoko etengabeko heziketarako zer-troak, Kalitatea fabrikazio prozesuetan izeneko ikastaroa eman du martxotza eta ekaina bitartean. Kalitate eta ekoizpen alorretako hainbat zuzendari, ingeniari eta teknikari esku hartu dute.

DANBOR HOTSAK JAI ZALE TABERNAN

Gazteluondon hasi ziren elkarrekin jotzen, eta esperientzia hark Gaztelu Konbo perkusio taldea osatzeko aukera eman zien. Iaz, San Juane-tan, hasi ziren jendaurrean jotzen, eta ez zeuden ziur aurrera egingo ote zuten. Joan den domekan eman ziguten baieztokoaren frog!



ROCÍO-KO AMAREN EGUNA

Rocío-ko Ama Birjinaren eguna ospatu zuten domekan eskualdeko etxe andaluziarrek. Al-Andalusek eta Arrasateko Rocío-aren Kofradiak antolatatu zuten. Meza entzun ondoren, Ama Birjina prozesioan eraman zuten Santa Teresaraino. Arrasaldean, Arruena parkean jaialdia egin zuten.



**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE


"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

hezkuntzaren erdigunea **ZU** zara



HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Kanpua

Lehenengo Zikloko Ikasketak

- Irakaleztan Diplomatura: Haurren Heziketa Berezitasuna.
- Irakaleztan Diplomatura: Heziketa Berezia Berezitasuna.
- Irakaleztan Diplomatura: Atzerriko Hizkuntza Berezitasuna.

Bigarren Zikloko Ikasketak

- Psikopedagogian Lizentziatua.

Ziklo Luzeko Ikasketak

- Humanitate - Empresa Lizentziatua

GOI ESKOLA POLITEKNIKOIA

ARRASATEko Kanpua

Lehenengo Zikloko Ikasketak

- Industri Mekanikan Ingeniari Teknikoa
- Sistemen Informatikan Ingeniari Teknikoa
- Industri Elektroniketan Ingeniari Teknikoa
- Industri Diseinuan Ingeniari Teknikoa
- Telekomunikazioan Ingeniari Teknikoa

Bigarren Zikloko Ikasketak

- Industri Antolakuntzan Ingeniaria
- Automatika eta industri Elektroniketan Ingeniaria
- Informatikan Ingeniaria
- Industri Ingeniaria

GOIERRIKo Kanpua

Lehenengo Zikloko Ikasketak

- Industri Mekanikan Ingeniari Teknikoa

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIKo Kanpua

Lehenengo Zikloko Ikasketak

- Gestio-Informatikan Ingeniari Teknikoa

Ziklo Luzeko Ikasketak

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua: Finantz Zuzendaritza, Merkatal Zuzendaritza, Erakundeen Kudeaketa.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.muni.es

Tel. 943 71 21 85



1950-2001



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



FAGOR

RK UZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

RK UZ
ELEKTROGAILUAN

Asunción, 1
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Tamara Miguel Gili Gili dendakue

Lana dala-eta, 21 urteko dendari honek edarto ezaguketan dattu Mondragoe eta Bilbo arteko kilometro danak. Lanien, dana emutie gustetan jako, baiñe aisialdixe be edarto aprobegetan dau, ahal dauenien, parrandarik parranda.

-Esaldazu guzur bat.

Erropak ez jat bat be gustetan.

-Amets bat.

Mundu osue bisitetie.

-Amesgaizto bat.

Ez naz akordetan.

-Egin dozun azken biajie.

Portugalera.

-Txartel horixe, zeñi?

Arrazismueri.

-Eta gorrixe?

Politikuei.

-Film bat? Liburu bat? Disko bat?

Braveheart / Eduardo Galianoren edozein / Silvio Rodríguezzen edozein.

-Gustora egitten dozu zeure lana?

Bai, oso gustora.

-Dendari ez bazitze, zer izengo zitzake?

Zientzialarixe.

-Animalixe izetekotan, zer?

Delfiñe.

-Drogak legalizauko zittukie?

Bateron bat bai.

-Eta prostituziñue?

Zergaittik ez?

-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

-Etxeko zapatillek ala zapatak?

Zapatak.

-Zer gustetan jatzu Mondragoetik?

Ez dot askorik ezaguketan, baiñe Udela asko gustetan jat.

-Alkate izengo bazitze, zer hobetuko zeunke?

Aparkalekuek.

-Eta lehendakari izengo bazitze?

Ez dot lan hori neuretako gure.

-Bizio bat?

Erropak erotie.

-Zer deitxozu Arrasate Press Goienkaria barruen sartziari?

Ez dot txarto ikusten.

-Gustoko mendi bat?

Aizkorri.

-Hiriz aldaketakotan, nora?

Oso gustora bizi naz Bilbon.

-Zure bizitzan ezagututako pertsona interesante bat.

Neure mutil-lagune.

-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Silvio Rodríguez.

-Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?



"Biajietan gastauko neuke dirue, mundu osue bisitetie gustauko litxakit"

Ez da neure estilue.

-Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

50x15 / La Jungla.

-Jasaten ez dozun zerbait.

Munduko pobretasune.

-Erropa marka bat?

Lois.

-Erosliek, gaztiek ala pertsona nagusixek nahixago?

Gaztiek nahixago, lan txixixe emuten daue-eta.

-Oporretan, lasai ala parrandarik parranda?

Danetik apur bat.

Aurrezki gorakorra

Euskadiko Kutxa

Laugarren sei hilekoa

%5,00

Hirugarren sei hilekoa

%4,50

Bigarren sei hilekoa

%4,25

Lehenengo sei hilekoa

%4,00

%4,48 UTB

2 urterako gordailua * milioi 1 pezetatik aurrera
(6.010,12 euro)

Interesak sei hilean behin likidatuko dira. Interesak kapital higigarriaren errendimendutzat hartuko dira eta, beraz, %18ko atxikipena aplikatuko zaie.

Eskaintza honek 2001-07-27ra arte balio du * Euskadiko Kutxak 15 eguneko epea emango du pentsatzeko, nahi izanez gero, eragiketa bertan behera uzteko * Informazio gehiago: 901 333 444 / www.cajalaboral.com

Aurrezki Gorakorra

Interes-tasa sei hilean behin handituko dizun inbertsioa.

901 333 444
www.cajalaboral.es


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin
elkarlanean

Etxe gehiago, Mojategiko kirol-gunea eta Garaia ekarriko ditu, besteak beste

Udalaren aspaldiko asmoa da Mondragoerako Egitamu Orokorra egitea. 1992. urtean erabaki zuen beharra bazegoela eta, bederatzi urte geroago, udaleko Hirigintza batzordeak udalbatzarrari hasierako proposamena aurkeztu dio. Orain dela hilabete eskas izan da hori. Eztabaida luzea izan eta gero, herriko gobernu taldeak hasierako onespina eman dio egitamuari. Orain, alderdi politikoek dituzten proposamenak, ezadostasunak eta bestelakoak egin eta eztabaidatuko dituzte. Gero, urtebete inguru pasatzen denean eta Diputazioaren beheadinga jaso ondoren, indarrean jarriko dute.

ETXEBIZITZAK

Egitamu Orokorrean jasotako ondorioetako bat da etxebizitzaren eskaintza oso txikia dela eta horrek prezioen sekulako igoera ekarri duela; Donostiako hainbat kokaleku kenduta, Gipuzkoako prezio altuenetariokoa daude Mondragoen.

Horrez gain, babes ofizialeko etxebizitzak egitea ere premiazkoa dela ikusi du udalak. Merkatuan dauden prezioak direla-eta, lagun askori ukatu egin zaio etxebizitza edukitzeko aukera eta eskubidea.

Azken urteotako eskaria ikusita, berriz, dentsitate txikiko etxebizitzak (familia bakarrekoak edo elkarri lotutakoak, Garagartzan egiten ari direnak modukoak) eraiki ahal izateko lurzorua gordetzea ere erabaki du udalak.

NON

Oro har, eraiki beharreko etxebizitza berriak Cerrajeran inguruan, "Etxe Txikiak" dauden lekuan, (Zabalgunea izena ipini dio udalak gune horri) eta Garagartza-Gesalibar auzoen artean egitea proposatzen du egitamuak. Cerrajeran eta Zabalgunean babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza arruntak egingo dituzte. Garagartza eta Gesalibar auzoei

dagokienez, ostera, biak lotu gura ditu udalak, eta bi auzoen artean etxebizitzak egin. Horrela, batetik, etxebizitza gehiago lortzen da eta, bestetik, Garagartza eta Gesalibar inguruan herri-gune berria eratzen da.

Hiru esparru bananduko dituzte: Barrutieta, Bustintza eta Atxabalpe. Lehenengo bietan trinkotasun txikiko etxebizitzak egingo dituzte, eta Atxabalpen, berriz, trinkotasun handikoak.

Horrekin batera, hiru ingurune horietara erraz heldu ahal izateko biribila egingo dute. Eta, bestalde, motor bakoien bide batekin ere lotuko dute Garagartza-Gesalibarko gune berria. Oinez zein bizikletaz joan ahal izango da batetik bestera.

Hortaz, Atxabalperi dagokionez, errugbi zelaia kendu egingo dute, eta, horren ordez, Mojategi izeneko kirol esparru berria eraikiko dute. 55.575m² izango ditu, honako kirol-guneekin:

- Futbol zelaia, belar artifizialarekin (100x64).

- Atletismo pista, 400 metro soka eta zortzi kalerekin.

- Errugbi zelaia, atletismo pistaren eraztun barruan (115x73).



ZERTARAKO DA?

Egitamu Orokorra etorkizuneko Mondragoe zelakoa izango den zehazten du: hau da, udalerriaren azpiegiturak zeintzuk izango diren, etxebizitzetarako eta jarduera ekonomikoetarako esparruak finkatuko ditu, etxebizitzak non egin esango du, zenbat berdegune egin eta non ipini... Oro har, herriaren hazkunde edo aldaketa modu antolatua eta ordenatua egiteko irizpideak finkatuko ditu.

Horretarako, herriak dituen beharrak zeintzuk diren aztertu eta zehaztu ditu udalak, eta horien arabera idatzi da egitamuak. Ikusi dutenez, egin beharreko ekimen garrantzitsuenak hauek dira, besteak beste:

- Lurzoru berria sailkatzea, bereziki, jarduera ekonomikoetarako (99'61 hektarea gehiago).
- Babestutako etxebizitzak eraikitzea (533 gehiago).
- Etxebizitza gehiago egitea (2.123 gehiago).
- Parke teknologikoak sortzea.
- Ingurumena zaindu eta babestea (2'98 hektarea berdegune gehiago).
- Arte, kultura, arkeologia eta natura ondarea babestea.
- Bide sarea hobetzea.
- Motor bakoien bide sarea ezartzea.

- Jarlekuak, aldagela, biltegi eta kafetegiarekin.

Bestalde, aparkaleku behar larria dagoela ere aurrez ikusi du egitamuak. Arazo hori

konpontzeko, eta dagoen lur eskasia ikusita, lur azpiko aparkalekuak egitea proposatzen du, hain justu, Cerrajeran eta "Etxe Txikietan".



Aurrerantzean, Atxabalpeko futbol eta errugbi zelaiak kendu egingo dituzte eta Mojategin kirol gune berria eraikiko dute.

JARDUERA EKONOMIKOAK

Baina lur beharra ez da bakarririk etxebizitzak edo aparkalekuak egiteko. Azken urteotako egoera ekonomiko ona dela-eta, industriak eta zerbitzuak ezartzeko lurzoru eskasera handia dago. Are gehiago, lurzoru faltagatik enpresa batzuk beste udalerriri batzuetara jo behar izan dute. Jarduera ekonomikotarako 99'61 hektarea gehiago lortu gura ditu udalak. Eta kopuru horren erdia, 448.547 m², Garaia egitasmoaren bitartez eskuratuko da. Erguin eta Ibarreta artean dauden lursailetan kokatuko da Garaia izeneko berrikuntza poloa. Horrez gain, Trefasa enpresaren lursailak ere Mondragon Unibertsitatearendako izango dira.

Bestalde, dentsitate txiki-ko industriaguneak sortzea ere aurrez ikusi du udalak. Hau da, eraikuntzan lan egiten duten enpresek obretako materiala eta bestelakoak gordetzeko lekuak eskatu izan dituzte

behin baino gehiagotan. Horrelakoetarako izango da, hortaz.

Halaber, puntako jarduerak ekonomikoak etxebizitzaguneen ondoan kokatzea egokia dela uste du udalak. Esaterako, Zalduspe inguruan teknologia parkeak eraiki ahal izango dira.

KALE BERRIAK

Gelma eta Cerrajera lantegi pribatuak izanda, kalekoendako itxita egon da pasabidea leku horietan. Baina orain, obrak egin eta gero, kale berriak zabalduko dira eta leku bategatik bestera joateko bide bat baino gehiago egongo da. Horrekin batera, Cerrajeran, Zalduspen eta Zabalgunean errepide berriak sortzeko asmoa dute. Horrek udalerriko bide sarea ugaritzea ekarriko du eta, ondorioz, zirkulazioarendako onura.

Bestalde, Gelma lantegian ere egingo dituzte aldaketak; izan ere, lantegia eraiki zenean herriaren kanpoaldean zego-

«Garagartza eta Gesalibar auzoak lotu gura ditu udalak, eta bi auzoen artean etxebizitzak egin»

en; herriaren hazkundearen ondorioz, ostera, gaur egun herri barruan geratu da. Hori dela eta, udalak erabaki du Gelmaren egoitza nagusia bere horretan uztea, bulego eta antzekoetarako. Eta, gainera, ondare kulturala ere bada, hortaz, dagoenetan utziko dute. Baina Gelmak beste lantegi bat egingo du erreka bestaldean, Lantegi Eskolaren ostean, eta hara eramango du bere jarduera industriala.

AZPIEGITURAK

Azpiegiturei dagokienez, udalarendako premiazkoa da

Takoloko biribila Uribarri auzoarekin lotuko duen mendebaleko saihesbidea egitea. Izan ere, zirkulazio astuna dago herri barruan eta sekulako korapiloak sortzen dira.

Eta, oro har, motordunendako bide sarea konpontzea ere aurrez ikusi dute, biribil gehiago eta bide berriak egitea, baita dauden bideak konpondu eta zabalagoak egitea ere.


Motor bakoeti dagokienez, bestalde, udalak uste du euren dako bide sare gabezia nabarmena dagoela herrian, eta helburua da oinezkoendako eta bizikletendako bideak egitea.

MOTORGABEKOENAKO

Hiru bide nagusik osatuko dute motorgabeako bide-sarea:

— “Trenbide Zaharra”, Elorregitik Mugarrietaraino: antzinako “Ferrocarril Vasco-Navarro”-ren ibilbidea hartzen du oinarritzat. Eta, hemen, Mondragoen, zenbait lekutan bidea itxita badago ere, ibilbide berriak egingo dira. Elorregin hasten da bidea, Bergararik datorren zatia jarraituz, eta hauxe da egingo duen ibilbidea: Araztegia, Kataide, Kaskonategi, Mojategi, Kiroldegia, Zigorrola, Zalduspe, Gosamendi, Zerrajera, Etxaluze, Eskatu, Intxausti, Fagor San Andres eta Mugarrieta; han Aretxabaletako zatiarekin lotuko da.

— “Musakola-Gesalibar” ardatza: bi zati nagusi ditu: Musakola-Monterron (Gernika Oinezkoen Zumardia) eta



Etorkizunean Gelma lantegiak bulegoak bere tokian utziko ditu baina lantegia erreka beste aldera eramango du.

Monterron-Gesalibar. Musakolako kiroldegia eta Mojategiko kirol esparrua udalerriarrekin lotzeko balioko du, besteak beste. Ibilbidea honakoa da: Musakola, Santamaina, Tokiargi, Santamaina, Feri-


xalekua, La Merced, Uarkape-Altamira, Monterron, Gorostiza-Larrea, Erguin, Uribarri, Garaia, Ibarreta, Fagor-Garagartza, Garagartza, Bustintza, Atxabalpe, San Juan de Dios eta Aita Menni.

— Etxaluze-Fagor Garagartza: aurreko biak lotzeko bidea izango da. Etxaluzetik hasi eta Garagartzaraino izango da, Ugaran bailaratik zehar: Etxaluze, San Andres, Olandixo, Eskola Politeknikoa, Uribe auzoa, Trefasa, Mendi-barren, Markulete eta Fagor Garagartza.

Oraingoz, Egitamu Orokorra datozen zortzi urteotarako da. Gero, aurrera begira, aldaketa larregirik ez badago, egitamu berarekin segituko du udalak. Bestela, berria egingo du.

Oharra: Norbaitek bere jabetzaren batekin egin dezakeena edo egin ezin dezakeena jakin gura badu, hemen-dik aurrera egitamuko fitxetan begiratu beharko du. Hor-txe daude argibide guztiak.

Ubane Madera



Mikel Lizarralde

Lizarralde Kirolak-en Tour lehiaketa mundiala

Mendi bizikleta bat irabazi nahi baduzu, azkar ibili!!

Tour-eko lehenengo hiru sailkatuak eta mendiko sailkapeneko irabazlea zeintzuk izango diren badakizu, beheko kupoi hau bete eta uztailearen 23a baino lehen Arrasate Press-era bidali (Otalora Lizentziatua, 31).

Gainera, mailotak ere eskura ditzakezu. Ikus Arrasate Irratiaren orria.

Irabazlearen izen-abizenak irailaren 7an kaleratuko ditugu Arrasate Pressen. Adi egon!!

Datu pertsonalak:

Jzen-abizenak:

Telefonoa:

Helbidea:

Herria:

Tour lehiaketa

Sailkapen orokorreko lehen hirurak:

- 1.-
- 2.-
- 3.-

Mendiko irabazlea:

- 1.-

Mari Jose Gil, Espainiako txapelduna

Aurreko asteburuan Espainiako atletismo txapelketa jokatu zen Salamancan, eta Maria Jose Gilek bere mailan irabazi egin zuen. Probak ekainaren 28 eta 29an izan ziren, eta Arrasateko atleta beterranoa azkarrena izan zen bi lasterketan. 1.500 metroetako proban 6'6"ko denbora egin zuen, eta 5.000 metroetako proba egiteko hogeita hiru minutu eta hamasei segundo behar izan zituen. Hori gutxi balitz, Arrasateko atleta gazteek ere lan bikaina egin zuten asteburuan. Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Anoetan, eta Jonathan Pérez arrasatearrak urrezko domina eskuratu zuen 4,30 metroko jauziarekin. Domina horrekin, lehendik ere



Mari Jose Gil, Jonathan Perez eta Unai Sarabia ezin hobeto aritu dira.

argi zegoena baieztatu du Real Sociedad taldeko atletak, etorkizuna baduela, alegia. Horrez gain, beste arrasatear batzuk ere fin ibili ziren Donostian. Unai Sarabiak zilarrezko domina eskuratu zuen 100 metro-



etako proban (11,52), eta 200 metroetako lasterketan brontzea erdietsi zuen. Oscar Gabilánnek brontzezko domina ekarri zuen Arrasate aldera, pisu jaurtiketan 33,8 metro egin eta gero.

Triatloia

Aurreko zapatuan triatloi proba jokatu zen Lekeition, eta beste behin ere Arrasateko triatleten lan bikaina azpimarratu behar dugu. Zapatu-ko proban 250 parte hartzaile izan ziren. Gizonezkoetan Llanosek eta emakumezkoetan Berasategik irabazi zuten; horiek maila handiko kirolariak dira, eta maila horretara hurbiltzen den arrasatearra, Jon Aperribai, zortzigarren izan zen. Oraingo asteburuan beste triatloi proba bat jokatu da, Beasainen, baina Jon ez da han izango; izan ere, Euskal Selektzioarekin jardungo du Kordoban jokatu den Espainiako txapelketan. Ez da lehen aldia Espainiako txapelketan parte hartuko duena, baina Euskal Herri mailako probetan lehenengo postuetan izaten den atleta bada ere, estatuan helburuak bestelakoak izaten dira. Zuhaitz Ezpeleta, Josu Eizagirre, Alejandro Altuna eta Arantzazu Errasti ere Lekeitioko triatloian izan ziren, eta proba amaitzeaz gainera, arrasatear horiek ere emaitza onak lortu zituzten.

Eskalada ikastaroa atzeratu egin dute

Eskalada ikastaro gehienak Pirinioetan izaten dira, eta askotan gaztetxoek ez dute aukerarik izaten haraino joateko. Arazo hori konpontzeko asmoz, Arrasateko Besaide mendi elkarteak haitz eskaladako ikastaroa antolatatu zuen

oraingo astebururako, baina arazo batzuk direla-eta, ikastaroa irailean egingo da. Uda parte oso aproposa da kirol hori praktikatzeko, eta ikastaroa oso leku egokian egingo da, Eginoko haitzetan, alegia. Berez, gazte jendearrendako

da, hortaz, hastapen mailako ikastaroa izango da. Esan bezala, ikastaroan izena emateko irail arte itxaron beharko dute Arrasateko gazteek, eta gehienez hogeirendako egongo da lekua. Hortaz, argi ibili irailen!!

MADINA ZURAK
Aroztegia

Olak, aglomeratuak, kontraxapatuak, tablexa, ateak, egurrezko leihoak, oin-inguruak, zangoak, aroztegiko osagarriak.

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

UNZUETA

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

Eguraldi ona eta triala



Domekako proban, ez zen Arrasateko inor parte hartzeraz animatu.

Domekan giro bikaina izan zen Udalan, eta hara hurbildutakoek aukera paregabea izan zuten moto gainean sekulako abilezia dutenekin gozatzeko. Domekan ez zuen arrasatearririk parte hartu, baina hori izan zen gauza txar bakarra. Beste guztia ikusgarria izan zen, eta Udalara hurbildutako ikusleek eskertu egin zuten

hori. Probak goizeko hamarretan hasi ziren, senior, junior, gazte, beterano eta amateur mailan, eta aurreko urteetan baino jende gehiegok parte hartu zuen. Guztira, 32 lagun izan ziren, Euskal Herritik eta Errioxatik etorriak, eta maila bikaina erakutsi zuten. Seniorretan Ibon Zorrila Euskadiko txapelduna izan zen onena; biz-

kaitarrak erakustaldi ederra egin zuen eta Zabala eta Bermejo bigarren eta hirugarren postuekin konformatu behar izan ziren. Junior mailan Jimenez errioxarra izan zen nagusi, eta gazte honek senior mailan ere parte hartu eta hemen ere sekulako maila erakutsi zuen, etorkizun handia daukala baieztatuz. Kadete mailan Tejero eta Gutiérrez nagusitu ziren, eta gazte mailan Urkizu eta Idoia Pey neska donostiarra izan ziren lehenak. Amateur mailan, bestalde, lehia handia izan zen, baina azkenean Pamo bizkaitarra nagusitu zen. Azkenik, beteranoetan, Ugarte arabarrak erakutsi zuen, nahiz eta urteek aurrera egin, oraindik sasoiaren dagoela. Hurrengo triala uda pasa ostean izango da; hortaz, ordu arte itxaron egin behar.

Saskibaloia entrenatzaile izan gura?

Joan den aspaldian herriko kirol taldeek txapelketetan parte hartu ahal izateko entrenatzaile falta igarri dute, eta Arrasate Saskibaloia taldeak arazoa konpontzearen, entrenatzaile ikastaroa antolatu du. Ikastaroa uztailan izango da, aste-gunetan arratsaldeko sei etatik iluneko bederatzi eta erdiak arte, eta zapatuetan goizeko hamarretatik ordu bata arte. Guztira 120 ordu izango dira eta ikastaroa egiten duenak lehen mailako entrenatzaile titulua lortuko du. Agiri horrek senior-probintzial mailara arte entrenatzeko balio du. Ikastaroa Debagoieneko ikasleendako da batik bat, eta izena emateko matrikula 30.000 pezeta kostatzen da. Ikastaroa atzo aurkeztu zuten Monterronen, baina oraindik baduzue aukerarik.

Squash txapelketa Musakolan

Aurreko asteburuan, Ake-Scuash taldeak antolatuta, Euskal ligako squash txapelketa jokatu zen Arrasaten. Guztira, hemeretzi lagunek esku hartu zuten, eta maila ona izan bazen ere, uste baino jokalaririk gutxiago animatu ziren parte hartzeraz. Txapelketa lehenago jokatzeko asmoa bazegoen ere, estatuko beste txapelketa batzuk tartean, Arrasatekoa atzeratu egin behar izan zuten, eta aurreko aste-



buruan jokatu zen. Partidu guztiak zapatuan izan ziren, goizeko bederatzietan hasi eta gaueko zortzi eta erdiak arte;

astindu ederra, hortaz. Txapela Olimpia Scuash taldeko Bruno Vegak eskuratu zuen. Bigarren postua Alvaro del Valendako izan zen, eta hirugarren Iñigo Domínguez izan zen, hirurak ere bilbotarrak. Arrasateko taldea ordezkatzuz, Luis Mari Gordo arrasatearra eta Garikoitz Iartzabal oñatiarra aritu ziren, eta lan bikaina egin zuten, txapelketan oso maila altua izan zela kontuan hartuta.

Mondraren batzarra

Atzo arratsaldean Mondra taldeak urteroko batzar nagusia egin zuen Arrasateko udal-etxean. Arrasateko futbol taldeko zuzendaritza eta taldeko bazkideak elkartu ziren, pasa den denboraldiko balorazioa egin eta datorren denboraldiko taldeak eta asmo berriak eztabaidatzeko.

Loramendi kirolak

BEHERAPENAK

Umeen arropak

San Andresen

Arkeologia ikastaroa atzeratu egin da



Oraindik esku har daiteke Gazte Sailak antolatutako arkeologia ikastaroan. Uztaile hasieran egin behar zen lehen saioa, baina ez da talderik osatu eta antolatzaileek hasiera atzeratzea erabaki dute. Datorren astean amaituko da izena ema-

teko epea. Hori bai, gehienez 20 lagun onartuko dituzte.

Arkeologia tailerraren bidez, zientzia horren oinarriko sekretuak ikasi ahal izango dira. Dena dela, ez dute inongo aurrejakintzarik eskatuko. Indusketetarako erabiltzen

diren teknikak, historiaurrea, estratigrafia edo aroen sailkapena, besteak beste, irakatsiko dituzte, Irungo Arkeolan ikerketa zentroaren eskutik.

Gazte Bulegoan eman beharko duzue izena, edo 943 77 00 65 telefonora deituta.

Txatxilipurdiren udalekuak

Aurten, lehenengo aldiz, hainbat umek ezin izango dute Txatxilipurdiren udalekuetan esku hartu, izena emateko epea bukatu ondoren matrikulatu zirelako. Ume horiei udalekuen bigarren txandarako izena emateko gonbita egiteaz gainera, Txatxilipurdik hainbat azalpen eman gura ditu.

KALITATE TXARRAGOA

Elkarrekin dioenez, udalekuak egiten diharduten urte guztietan erabiltzaileek ez dute inoiz izena emateko epea errespetatu. "Taldeak egin eta begiraleak hautatu izan direnean, berregituratze lanari ekin behar izan diogu, urterro, mugaegunetik kanpo etorri diren umeak hartzeagatik", dio Txatxilipurdik; "Horrek gure lanean eta antolaketan eragozpenak sortzen ditu, eta eskaintzaren kalitatean eragina du, baita udalekuak antolatzen dihardugun langileon lan baldintzetan ere".

Udaleku "alai eta erakarriak" eskaintzea da elkarrearen helburua; hortaz, aurten, izena emate data errespetatzearen aldeko apustua egin du. "Gure erabakia onartuko delakoan eta datorren urteetako udalekuei begira kontuan hartua izango delakoan, barkamenak eskatzen dizkiegu kaltetuak izan diren ume eta gaztetxoek", gaineratu du Txatxilipurdik.

Arima Beltza, kontzertuan

Arima Beltza talde elgoibartarrak kaleko kontzertua eman go du uztailearen 13an, egubakoitza. Ferrerias kaleko plaza-txoan izango da, baina eguraldi txarra eginez gero, taberna baten. Edozelan ere, 23:00etan hasiko da saioa. Rock eta blues estiloak bat egiten ditu Arima Beltzak; 70eko hamarkadako musikaren antzekoa, hortaz. Bost lagunek osatutako taldea da, eta orain dela gutxi argitaratu dute disko bat Gaztelupeko Hotsak etxearekin.



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



LUIS JAVIER ARRIETA (MARGOLARIA)

«Gure egoitza berria urruti samar dago, baina argi ezin hobea du»

Uztailaren 13an, Luis Javier Arrietaren bakarkako bosgarren erakusketa inauguratuko da Harresi aretoan, eta 25a bitartean izango dugu ikusteko aukera. Azken urte eta erdian egindako lanak erakutsiko ditu, berri-berriak, hortaz.

— Zure erakusketa olioiz osatuta dago. Gogokoen duzun teknika da hori?

— Ikasi, hainbat teknika ikasi ditut, maila batetaraino, behintzat: akrilikoa, akuarela... Baina sakondu, sakondu, olioan bakarrik sakondu dut. Gustukoena dut, bai: kolore garbiena du eta osoena da, niretako bederen. Gainera, olioak margotzen ari zarenari bigarren ukitu bat emateko aukera eskaintzen dizu, egiten ari zarena aldatzeko, alegia.

— Zein gai dituzu gustukoen?

— Erretratu eta natura hilak. Marinak ere oso gustuko ditut. Gutxien lantzen dudana herriko bazterrak eta base-riak dira; horiek ondo saltzen dira, baina nik ez ditut jorratzen. Nire ustez, gertuko paisaiak eta baserriak askok egiten dituzte, baina oso gutxik egiten dituzte benetan ondo. Gutxitan ikusten ditut, ordea, marinak, erretratuak, natura hilak... Guztiak eginez, zelako hutsunea duzun konturatzen zara... Nire ustez, margolariak gai bat baino gehiago landu beharko lituzke. Denetarik ikasi beharko luke, sukaldari baten moduan.

— Zein formatu dute margoek?

— Tamaina ertaina. Esaten da margolan txikiakin edozein ausartzen dela, eta zenbat eta trebeagoa izan, orduan eta tamaina handiagoekin saiatzen dela margolaria. Ni erdibidean nago. Margolan txikia erraz da betetzen; oihal handia, askoz zailagoa.

— Zein margolari dituzu eredu?

— Maisu handienak, Rembrandt -konposizioan- eta Velázquez -margoa- ren erabileran eta pintzeladan; argiaren erabileran, Sorolla. Zurbaran ere gustuko dut.

— Arrasate Margo Taldekoek egotzaz aldatu beharra duzue. Zer deritzozu horri?

— Orain arte izan dugun tokia, gazetxe inguruan, ondo kokatua dago. Zentzu horretan, berria ez dago hain ondo: geltoki inguruan dago, eta taldeko kide askok gaitz izango dute hara joateko, ez bakarrik oinez joan behar dutelako, baizik eta askotan tramankuluak eraman beharra dagoelako, eta egunero joan... Egoitza horrek badu abantaila handi bat, ordea: argi ezin hobea du. Iparraldeko argia sartzen zaio, hau da, zeharkakoa, margo-
tzeko onena.



« Olioa dut teknika gustukoena: kolore garbiena da eta osoena da »

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Binloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebuden hizkiak

Tourreko lau maillot nagusiak eskuratzeko aukera

Lau dira Frantziako Tourreko maillot nagusiak: horia, zuria, berdea eta zuria puntu gorriekin. Horiek guztiak zozkatuko ditu Arrasate Irratiak egubakoitzetan. Horretarako, *Arrasate Pressko* kupoia bete beharra dago. Astean erredakziora heltzen diren kupoi guztien artean bat aukeratuko dugu, eta horri egokituko zaio maillota. Datorren egubakoitz goizean, hilak 13, maillot zuria zozkatuko du irratiak, Tourrean txirindulari gazte onenari eman ohi zaion maillota, alegia. Hortaz, datorren astean heltzen diren kupoiaren artean bat hartu eta hori izango da maillot zuriaren jabea.

Mikel Lizarralde dendak emango ditu lau maillotak.



arrasate
irratia



Sariak

Udako kantuekin osatutako diskoa eskuratu gura baduzu, parte hartu Jai Dagin irratsaioan. Haika Aizpurua eskoriatzarrak gidatzen du musika saioa, eta bertan parte hartuz gero, diskoa eskura daiteke.

Izen-deiturak:
Tel.:

Bidalari gureru: Arrasate Press, Otarora 31.
edo deitu Arrasate Irratira: 943 71 17 31.

Hego Afrikara Jasone Mendizabalekin

Astean bidaien gaineko elkarrizketak egiten hasiko dira. Datorren astelehen goizean, *Udako koktelera* saioan, Jasone Mendizabal arrasatearrak iaz Hego Afrikara egindako bidaiak kontatuko digu. Entzun beharreko elkarrizketa, herri hori bisitatzeko asmoa baduzu edo, beste barik, bidaiazalea bazara.



Sariak

Xuxen, euskarazko zuzentzaile ortografikoa, ere badugu entzuleen artean banatzeko. Horretarako nahiko da telefono dei bat egitea.

Izen-deiturak:
Tel.:

Bidalari gureru: Arrasate Press, Otarora 31.
edo deitu Arrasate Irratira: 943 71 17 31.



ANCEPEL
homologatutako diploma

DANKAR'T

ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA ESKOLA

Irakaskuntza kalitatea
Lanaren atek zabaltzen dizkizugu

EIBAR Tel.: 943 12 15 18 / 943 12 71 52
Matrikula epea zabalik



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otarora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Iturriotz kalean lehen bazegoen Hilariren Kabareta izeneko pub antzeko bat; eta haren goiko aldean Ehiza eta Arrantza izeneko elkarteak, gaur egun Leintze elkarteak deitzen dena. Hain justu, elkarte horren

aurrealdean dago aterata argazki zaharra. 1954ko ekainaren amaiera aldean zen, oraindik ere herria jaietan zen. Hauexek dira goitik hasita, ezkerretik esku-mara, egun horretan elkartu ziren lagunak: Pilar Mascariario, Arantza Otadui, Maria-

sun Elgoibar, Lourdes Egidazu eta Mari Carmen Otadui. Behean, berriz, euren amatoak ageri dira: Maria Zubizarreta ezkerrekoa, ezezaguna ondorengoa, Candida Otadui haren ondoan, eta azkena Teresa Iribecampos. Umeak,

berriz, Juan Jose Mascariario, Jesus Mari Mondragón, Paco Ansuategi, Rosa Maria Mondragón eta Tere Egidazu dira.

*Argazkia eta berriemailea:
Tere Egidazu.*

ADI! HELBIDE BERRIA DUGU

*Orain, San Andres 10 D.an gaude. Gasolindegia-
ren parean.*

TAKOLO AUTOAK

53 P.K Tel.: 943 79 05 86. ARRASATE



*Instalazio berriak
Auto erakusketa*

OPEL

Ordutegi berria:

Astelehenetan,
13.30etatik
20:00etara

Asteartetik
ostiralera,
9.30etatik
12.30etara eta
13.30etatik
20:00etara

Larunbatetan,
8etatik 13:30etara

Diseinua...

Tratamenduak...

Koloreak...

Joera berriak...

**Zutikako
solariuma**

Maatz

ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 behea • Musakola • Arrasate • **943 79 58 78**





Beherapen bereziak

UNITED COLORS
OF BENETTON

Maalako Errabala, 13 behe
ARRASATE • Tel.: 943 79 92